

Aerochallenge 2020

Industria aeroespazialaren etorkizunarekin lotuta ikasleek dituzten ideia berrien saria

Euskadiko Aeronautika eta Espazioko Klusterrak **Aerochallenge 2020** Industria Aeroespazialaren Etorkizunerako Ideien I. Lehiaketa jarri du abian, prestakuntza-komunitatearen barnean ekimen ekintzaileak sustatzeko asmoz.

Ikasleen, doktoregaien, ikertzaileen eta abarren talde edota ekipoei zuzentzen zaie. **Industria aeroespazialaren jasangarritasunera bideratutako ideia disruptibo onena edo negoziotik hurbil dagoen ideia onena** sarituko da, honako gai hauetakoren batean:

- Aireontziei buruzko kontzeptu berriak (propultsioa, egitura, sistemak, jarduketa...)
- Fabrikazio aurreratua, digitalizazioa, *Industria 4.0...*
- Elektrifikazioa, hibridazioa...
- Droneak/UAVak, lur-sistemak, autopilotuak...
- Espazio berria
- Anezka eta satelite berriak (minisats, cubesats...)
- Ontziratutako sistemak

Aurkeztutako ideien jabetza intelektuala lehiakideena da

ENTREGATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Dokumentua pdf formatuan (gehienez 5 orri, A4) edota bideoa (gehienez 2:30 minutuko iraupena duena). **Euskarri horiek honako alderdi hauek zehaztu behar dituzte:**

- Parte hartzen duen taldearen identifikazioa: izen-abizenak, eta ikasleak direla egiaztatzen duten agiriak
- Ideiaren deskribapena, kontzeptua, soluzioa eta (aplikatzekotan) zer arazo konpontzen duen
- Dakarren berrikuntza
- Osagai teknologikoa (aplikatzekotan)
- Gizartean eta ingurumenean duen inpaktua (aplikatzekotan)

EPAIMAHAIA

Sektoreko lau profesional seniorrek eta gai horretan esperientzia duen irakasle batek osatuko dute epaimahaia.

MEKANIKA ETA EPEAK

- **Ideiaen aurkezpena:** email bat bidaliko da honako helbide honetara: arodriguez@hegan.aero; gaiari dagokion atalean, "Aerochallenge 2020", taldeko bozeramailearen izen osoa eta harremanetarako telefonoa adieraziko dira. Aurkezteko epea: 2020ko ekainaren 15eko (astelehena) 23:59ak arte.

Jasotako ideietatik 6 aukeratuko dira gehienez, eta **EHUk Bizkaia Aretoan urriaren 30ean (ostirala) egingo duen 2020ko Aerotrends Kongresuan** aurkeztuko dira:



- **Elevator pitches:** dagokion saioan, ideia bakoitza bost minutuz defendatuko da; ideiaen aldeko argudioak, berrikuntzaren edukia eta bideragarritasun-datuak azalduko dira.

Saio horren ondoren, epaimahaiak eztabaidatu eta azken erabakia hartuko du.

- **Sariaren banaketa:** Aerotrends 2020ko itxiera-ekitaldian emango da, urriaren 30ean (ostirala).

SARIA

Saria 2.000 €-koa da, eta aurkeztutako eta saritutako **proiektuarekin jarraitzeko emango da**. [ITP Aero](#) enpresak emango du.



EMAN IZENA HEGALDI HONETAN!